

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.12.29

Tolosako Udaletxean, 2015eko abenduaren 29an, iluntzeko 8etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Olatz Peon Ormazabal, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 29 de diciembre de 2015, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Beloso
Patxi Amantegui Zubiria
Nuria Carbonell Miranda
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente
Lore Agirre Zipitria
Onintza Lasa Arteaga
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Igor Ezenarro Balda
Maria Lasa Arruabarrena
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Jose Ignacio Asensio Bazterra

Idazkaria:
Jose Luis Unanue Ugalde

Behin behineko kontuhartzailea:
Paulino Alonso Eraso

Eguneko gaia zerrenda

1. Ondorengo akta onartzea:

2015eko azaroaren 24ko Ohizko Osoko bilkurakoa.

Orden del día

1. Aprobación de la siguiente acta:

Sesión ordinaria del 24 de noviembre de 2015.

- | | |
|---|---|
| <p>2. Alkatezako dekretu hauen berri ematea:

2015eko azaroaren 1etik 30era
(2015/1.744-2015/1.924).</p> <p>3. Tolosako Udalaren 2016ko Aurrekontu Orokorra onartzea:
- Bere aurrekontua
- Iurreamendi Egoitza
- Tolargi, S. L.
- Erretengibel, S. A.
- Tolosa Lantzen, S. A.
- Tolosa Lotzen, S.A.
- Tolosa Gasa, S.A.
- Bateratua</p> <p>4. 2016ko ekitaldirako Tolosako udaleko eta lurreamendi Egoitzako plantila onartzea.</p> <p>5. Tolosako Udaleko eta lurramendi Egoitzako 2016 urterako lanpostuen zerrenda onartzea.</p> <p>6. Gardentasunaren udal atarian argitaratzeko ereduak dokumentuak onartzea.</p> <p>7. Galderak eta eskaerak.</p> | <p>2. Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

Del 1 al 30 de noviembre de 2015
(2015/1.744-2015/1.924).</p> <p>3. Aprobación del Presupuesto General del Ayuntamiento de Tolosa para el año 2016:
- Presupuesto propio
- Residencia Yurreamendi
- Tolargi, S. L.
- Erretengibel, S. A.
- Tolosa Lantzen, S. A.
- Tolosa Lotzen, S.A.
- Tolosa Gasa, SA.
- Consolidado</p> <p>4. Aprobación de la plantilla orgánica del Ayuntamiento de Tolosa y de la Residencia lurreamendi para el año 2016.</p> <p>5. Aprobación de la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Tolosa y de la Residencia lurreamendi para el 2016.</p> <p>6. Aprobación de los modelos de documentos a publicar en el portal municipal de transparencia.</p> <p>7. Ruegos y preguntas.</p> |
|---|---|

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación, se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

1. Ondorengo akta onartzea:

2015eko azaroaren 24ko Ohizko Osoko bilkurakoa.

1. Aprobación de la siguiente acta:

Sesión ordinaria del 24 de noviembre de 2015.

Izenburuan aipatutako aktan partaidetzak sartuak ez daudenez, mahai gainean uzten da gaia hurrengo plenoan onartu ahal izateko.

2. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

2015eko azaroaren 1etik 30era (2015/1.744-2015/1.924).

2.- Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

Del 1 al 30 de noviembre de 2015 (2015/1.744-2015/1.924).

Alkatetzak 2015eko azaroaren 1etik 30era bitartean (2015/1.744-2015/1.924) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

3. Tolosako Udalaren 2016ko Aurrekontu Orokorra onartzea:

- **Bere aurrekontua**
- **Iurreamendi Egoitza**
- **Tolargi, S. L.**
- **Erretengibel, S. A.**
- **Tolosa Lantzen, S. A.**
- **Tolosa Lotzen, S.A.**
- **Tolosa Gasa, S.A.**
- **Bateratua**

3. Aprobación del Presupuesto General del Ayuntamiento de Tolosa para el año 2016:

- **Presupuesto propio**
- **Residencia Yurreamendi**
- **Tolargi, S. L.**
- **Erretengibel, S. A.**
- **Tolosa Lantzen, S. A.**
- **Tolosa Lotzen, S.A.**
- **Tolosa Gasa, SA.**
- **Consolidado**

Partehartzeak honakoak izan dira:

... Alkatea: "Ongi etorriak 2016ko Tolosako udaleko aurrekontuak onartuko ditugun osoko bilkura honetara. Aurrekontuak aurreko jarduera ekonomikoari dagozkion helburuak eta politikak zehazten ditu, aurrekontuan proiektuak desberdinen artean, atal desberdinak osatuz eta lehentasunak ezarritik. Era berean, jarduera ekonomikoaren kontrolerako funtsezko tresna ere bada, errealitatean gertatzen diren sartu-irteerak, aurrekontuak ikusitakoekin aldatuta egiten delako urte amaieran.

Tolosako udaleko hasierako aurrekontu hau 24.500.000 milioikoa da, legeak eskatzen duen bezala sarrera eta irteerak orekatuak dituela.

Aurrekontu hau, 2016koa, transiziozkoa izango da, izan ere Udalean, legealdiaren hasieran, ez ditugu landutako proiektu berririk topatu eta, beraz, 2016. urtea izango da proiektu berriak garatzeko urtea.

Markatutako lehentasunen isla, hurrenez-hurren:

- Ekonomia eta enpleguaren sustapenena lehenik, bizi dugun errealitateari begiraturik. Urriko langabezien datuen arabera %13,6 da Tolosako langabezi portzentaia, lan erreperazioa motela baina etengabekoa da. Gaur eguneko egongo ginateke 2012ko otsaileko tasa berdinean. Enplegu kalitateari erreparatzen badiogu, igoera % 61ean zerbitzuetara bideratzen da eta % 18 industriara. Enpresen tamaina da gurean oso kontutan izan beharrekoa. Dagoeneko harremanetan gaude SPRI eta GFArekin: hemengo errealitatez hitz egiteko eta proposamenak egin ahal izateko. Enpresekin harremanak zuzenak berreskuratu nahi ditugu. Horretarako Leihatila bakarria jarriko dugu prozedurak errazteko. Aurrekontu honetan ez dauka isladarik ez duelako diru ekarpenik behar, gestioa baizik. Lanbide Heziketa Institutuarekin enpresarekin duen harreman zuzena indartu eta elkarlana positibizatu behar dugu, etorkizunean enpresak dituzten beharrak eta gure gazteen

prestakuntza eta lana bermatzeko. Ekintzaileentzako programak aurreikusten dira: Berriz programa eta Gune Biziak islatuta daude aurrekontuan; Merkataritza sail berria jada badago. Azpimarratu nahi nuke, Hirigune laguntzaren bidez egingo dugun ikerketa 2016an, orain arte bakarrik hiriburuetan egin dena, Tolosan egingo dela; azokak indarberritzeko hasi gara lanean, "Zizka-mizka koxka" programa. Turismoan, Ostatu proiektu berriaren lanketa egingo da 2016. urtean. Enpleguari dagokionez: 5 peoi kontratatuko dira urte osoan. Enplegunearen bitartez 55 lanpostu lortzen dira eskualderako eta honetan lanketa berezia egiten duela esan behar da Tolosako Udaleko kontuhartzaitzak eta, beraz, hemendik, gure eskerrak eman nahi dizkiet. Bestaldetik, Landa eremuaren beharren lanketa egiten da, landa-auzo batzordearen bitartez; azpimarratu Santa Luziako inbernadorea. Bestetik, Tolosaldea Garatzenekin batera, eskualderako proiektu estrategikoen lanketak bultzada bat behar du, birmoldaketa. Dagoeneko, bertan gogoeta egiten ari gara eta neurriak 2016. urtean hartuko dira. Gizarte Politikari dagokionez, igoera gehien duen saila da aurrekontu honetan, beraz aurrekontu erabat soziala. Igoera zerbitzu hauetan ematen da: Etxez-etxeko laguntza; Elkarteei diru-laguntza, gehienbat ABEGlri; Gizarte Larrialditarako laguntza. Eta lurreamendiren kasuan ekarpena bikoiztu egin da eta horretaz gain inbertsioetarako diru ekarpen bat egiten da. Gainera, Tolosako pobrezia eta baztertze sozialaren diagnostikoa burutuko da 2016 urtean, egoera erreala ezagutzeko eta baliabideak egoki erabiltzeko.

- Azpiegiturei dagokionez, Bidebieta izango da lehentasunezko eremua. Alde batetik, urbanizazioa eta irisgarritasuna hobetzeko aktuzioak egingo dira. Igeraldeko igoera zabalduko da, ibilgailuak eta oinezkoak nahiko leku izan dezaten. Eta Izaskun auzoan ere irisgarritasuna hobetu egingo da. Guztia bertako bizilagunekin elkarlanean egingo dugu, horrela adostu dugu bizilagunekin, proiektu zirriborroa egiten dugunean, partekatuz eta iritzi trukaketa eginez. Berazubin auzotarrentzat lokalak egokituko dira. Ferialekuaren zapaia egokitu egingo da. Elosegi parkeko eta Santa Luziari buruzko ekarpenak bukatuko dira. Tolosako Hirigintza Plan Nagusiaren Berrikusketaren inguruan, San Esteban auzoan aipatu beharra dago. 2016. urtean udal talde desberdinen arteko adostasuna lortzen saiatuko gara. Bestetik, alogerako etxebizitzaren sustapenarekin jarraituko dugu.

-Euskararen inguruan, Udal barrutik kanporako euskararen erabilpenean eragin nahiko genuke. Horretarako, hornitzaileekin harremanak euskaraz garatzeko planak osatuko dira. Eta baita, beste gainontzeko administrazioarekin harremanak euskaraz garatzeko plana ere. Bestetik, UEMako diru ekarpena mantendu egingo da; orain arte egon ez den elkarlana abian jarriko dugu. UEMatik iritsi zaigu Tolosako elkarlan proposamen bat eta horretan partehartzeko asmoa daukagu, beti ere, Tolosako egoera soziolingustikoari erreparatuz eta Tolosaldeko beste herrien berdina Tolosa ez dela kontutan izanik.

-Berdintasuna: III. Planaren osaketa datorkigu 2016. urtean.

-Kiroletan hauek dira: Usabalgo harmailaren obra laister hasiko da; Tolosa Futbol Taldearen bulegoetako proiektua eta ZUMARDI proiektua lagunduko da, kirol ez konpetitibo eta kaleko kirola sustatzen duena.

-Bizikidetzaren herritarrek bizikidetzaren inguruan egiten dituzten ekimen guztiak bailagarriak bezain garrantzitsuak direlako babestu egin behar dira. Berebiziko garrantzia izango du udal talde ezberdinen arteko akordioa bilatzea.

- Partaidetza-Gardentasunaren inguruan, estreinekoz Tolosako Udalak badu gardentasunaren saila. Gardentasun legeak behar batzuk jartzen ditu, baina gu legetik haratago ere joan nahiko genuke. Argitaratu dira hainbat atal herritarrek ahalik eta informazio gehien izan dezaten, zuzenena eta argiena, konfidantza esparruak lortu ahal izateko herritarrekin. Arlo honetan aipatu ere egin behar da Amaroeko prozesu partehartzailea abian dela Prometea enpresaren bitartez. Horretaz aparte, gure legegaldiko erronka izango da etorkizuneko Tolosa eraikitze prozesu partehartzailea garatzea, elkarte, gizarte eragile eta herritarren guztien iritziak partekatuz.

Gardentasunez ari garenez, azpimarratu nahi nituzke demagogiarako bidea eman duten eta eman dezaketen bi gai nagusi: batetik, Udaleko zorrak; aurreko legegaldian EHBILDUK

erabilitako argumentarioan nahita egindako nahasketa egiten zuen, Udalak zuen zor biziaz gain, beste hainbat gastu gehitzen zituzten Jokin Bildarratzen legealdiko lekuz kanpoko zorra adierazi nahian. Hori ondo argitzea merezi duela uste dut. Zorra mailegu baten ondorioa da, hau da, ohiko sarreretatik kanpo erabiltzen den dirua, maileguaren bidez. Elozegi Parkea eta Santa Luzia esaterako ez dira zor horietan sartzen. Hori esatea informazioaren manipulazioa da. Bere garaian, Udalak eskatutako maileguak herrian hainbat inbertsio egiteko erabili dira. Adibidez, Usabalgo polikiroldegia. Jarduera ohikoa da, beti ere, maileguari aurre egiteko baliabideak baldin baditu Udalak, Tolosa kasuan bezala. EHBILDUK behin eta berriz errepikatutako zorra inbertsioa izan da. Kontuak beste era batera egingo bagenitu, zer da egindako inbertsio guzti horietatik soberan dagoena? Polikiroldegia, Zerkausia, Leidor, Topic, zer dago soberan? Inbertsioak legezkoak izateaz gain, ezin dute inolaz ere Udalaren aurrekontuen egonkortasuna arriskuan jarri. Tolosako Udala ez da egon egoera horretan eta emaitzak, berriz, begi bistakoak dira. Gaur egun, Udalak duen zor bizi hori bere aurrekontuaren %4,64 da. Demagogiarako bidea eman duen beste datu bat ere eman nahi nuke: 2016ko aurrekontu guzti honetatik talde politikoen finantziario zenbatekoa ez da %2ra iristen. Horretan sartzen dira hiru kontzeptu: bat, soldatak, bereziki alkatearen eta alkateordearenak; bigarrena, dietak, zinegotziek pleno eta batzordeetan parte hartzeagatik jasotzen duten ordainsaria; eta azkenik, alderdi politikoei, zinegotziei, kopuruaren arabera, ematen zaiona. Kopuru guzti hauek lehenengo plenoan erabaki genituen, aurreko legealdiko kopuru berean eta kopuruak aldatzekotan partaidetza eta gardentasun batzordean eztabaidatzeko proposamena luzatu genuen. Tamalez, demagogia politikotik kanpo ateratzen ez den bitartean ez dut uste gutxieneko baldintzak ditugunik gai hauetaz lasai hitz egiteko. Bitarte horretan kopururik ez da aldatuko. Gobernu honetako alkate eta alkateordeak aurreko gobernuko alkate eta alkateordeak zuen ordainsari berea dute. Aurrekontuetan azaltzen diren kopuruaz gain, Tolosako udaletxeko web orrian soldata guztiak azalduko dira gardentasun osoz. Ez da ona jendea nahasten ibiltzea, redito politikoa atera nahian. Uste dut, horrelako jokaerak klase politiko osoa deskalifikatzen duela. Errealitatea da talde politiko bat gutxiago dagoela gaur egunean, aurreko legealdiarekin alderatzen badugu. Aralar taldea orain EHBILDUKo koalizioaren barruan dago eta hiru liberatu baldin bazeuden aurreko legealdian, orain, bi daude. Udaleko kudeaketa egokia egiteko ikusiko bagenu liberatu gehiago izatea, erabakia hartuko genuke osoko bilkura honetara ekarriz, eta argibide guztiak emango genituzke. Baina hori ez da gaur egungo kasua. Bide batez ere, eskatu nahi nieke komunikabideei horrelako informazioak helarazten dizkietenean informazio hori kontrastatzeko. Aurrekontu hauetan lehenetsuneko proiektuak jasota daude. 2016 urtean zehar, ohikoa denez, kreditu aldaketak egingo dira, Tolosak behar dituen beste hainbat proiektu garatzeko, baina aurrekontuan benetako xehetasun teknikoak Ogasun batzordeko buruak, Begoña Tolosak, azalduko ditu orain.”

... Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV): “Aldez aurretik nahiko nuke Kontuhartzailletza departamentu osoari eskerrak eman egin duen lanarengatik. Gaiari helduz, Tolosako udalean, 2016rako aurreikusten den aurrekontua 24.462.000 €koa da. Gure legealdiko lehenengo aurrekontua da eta aurreikusi egiten dira aurreikusitako sarrerak eta gastuak. Ondoren, urtean zehar egingo dira egin beharreko aldaketak gure legealdiko programan agertzen diren ekintzak martxan jarri ahal izateko. Azpimarratu egin beharko genuke 2016ko aurrekontu hauek trantsiziozkoak direla. Izan ere, Udalean inbertsioaren karpetan ez dago proiektu berririk eta 2016a proiektu berriak garatzen eta lantzen hasteko urtea izango da, datozen urtetan gauzatzen joango garenak. Proposatzen diren gastuak, “Gastu eta sarrerak”, Udaletxean horrela egiten direlako, hiru ataletan banatzen dira: lehenengo atala Eraiketa arruntak, bigarrena Finantza gastuak eta hirugarren atala Kapital eraiketak. Eraiketa arruntak, lehenengo atalean, aurreikusten ditugu 20.682.000 € euro gutxi gorabehera eta suposatuko dute aurrekontu osoaren %84 puntu. Hemen aipatzekoak dira pertsonal soldataren igoera, %1ekoa; bost peoiaren kontratazio urte osorako, Brigadan lana

egiteko; Merkataritza, Turismo eta Azoka sailerako urte osorako dinamizatzailearen kontratua, sektoreak zeukan indarra berreskuratu dezan. Gizarte zerbitzuetan igoera nabarmena ematen da tolosarraren ongizatea lehentasunezkoa delako guretzat. Kasu honetan, Etxez etxeko laguntzen igoera % 7,5koa da. Elkarteei ematen zaien dirulaguntza igo egiten da %57, gehienbat ABEGI zentroaren finantziazioa Udalaren esku gelditzen delako. Gizarte larrialdietarako laguntzak igo egiten dira %10-12 puntuetan. Eta aurten ere, aurreikusten da ikerketaren bat egitea Tolosa 2016ren pobreziaren eta baztertze sozialaren esparruan dauden beharren eta ditugun baliabideen diagnostikorako. Azterketa sakon bat izango da jakiteko zein egoeran aurkitzen garen gaur egun Tolosan eta horrek lagunduko digu hobeto bideratzen udaletxetik jartzen diren laguntzak. Partaidetza eta Gardentasuna sail berria osatuta dago dagoeneko eta bere isladapena du aurrekontuan 60.000 €kin. Inoiz horrelako pisurik ez du izan batzorde honek. Gainera, gardentasuna garatzeko udaleko web orrian barneko berriak azalduko dira, esate baterako, gure soldataren aparte, urteroko Udalaren aurrekontuak, urteko kontuen auditoriak eta baita deszentralizaturiko erakunde eta sozietateen aurrekontuak ere.

Bigarren atala, Finantza gastuak: hemen sartzen dira inbertsioetarako garai batean eskatutako diruaren interesak eta amortizazioak. Kasu honetan, aurreikusten da 1.135.000 euroko izango dela eta suposatzen du aurrekontu osoan %4,64 puntu. Eta azkeneko atalean, Kapital eraiketan, gehienak inbertsiora doaz eta aurreikusten da sartzea 2.644.000 euro gutxi gora-behera. Hemen aipatzekoa da lurretan egiten den inbertsioa, 1.207.000 €koa. Kasu honetan 1.207.000 euro hauek bideratzen dira Elosegi Parke eta Santa Luziako partzelaren desjabetzeak ordaintzeko. Eta horretaz aparte, beste 800.000 € Bidebietako eremuko azpiegituren hobekuntzarako. Hasieran, aipatu dugun bezala, behar den heinean, kreditu aldaketaren bidez joango gara elikatzen partidak behar diren alditan, herritarrek behar dituzten azpiegiturek osatzen joateko. Laburbilduz, aurrekontuak 24.462.000 €koak dira, beste urteekin konparatuz, aurten FOFIMetik 800.000 € gehiago jasoko genituzke, ICIO eta aprobetxamendutik, 600.000 € gehiago eta Tolargitik, lehen 425.000€ jasotzen baldin baziren, aurten jaitsiera ematen da 180.000 euro arte. Beraz, gutxi gora-behera, 1.500.000 gehiago edukiko genituzke. Non erabiliko diren sarrera hauek? 800.000 €, Bidebietako inbertsiotan, 180.000 € lurramendi egoitzan gizarte zerbitzuaren aldetik; 245.000 € berdintzeko Tolargiren jaitsiera eta beste guztia lehenengo kapituluan, pertsonal kapituluan eta gizarte zerbitzuetan emango diren igoerak ordaintzeko. Bukatzeko, azpimarratu nahi dut, aurrekontu hauek, alde batetik, egonkorrak eta jasangarriak direla, ez duela zorpetzea aurreikusten. Bigarren, aurrekontuak sozialak dira, saiatzen ari garela egoera zailean aurkitzen diren tolosarraren egunerokoa hobetzen eta hirugarren, trantsiziozko aurrekontuak direla baliabideak mugatuak direlako.”

- ... Jose Ignacio Asensio Bazterra (PSE-EE): “Guk aurrekontuari begira lehentasunak beti argi izan ditugu: enplegua, gizarte zerbitzuak eta berdintasuna. Gizarte zerbitzuei dagokionez, azpimarratu, gure uztez, berrmatuta gelditzen direla, bereziki etxez etxeko eta familiei gizarte larrialdietarako laguntzak. Baita lurramendiari dagokion ekarpena ere. Bestalde, orain dela egun gutxi, hondakin aldaketa egin genuen eta badakigu zertan erabiliko dugun dirua. UEMArekin ekarpenarekin ez gaude ados, eta hori azpimarratu nahi nuen. Ez dakit nondik norakoa izan den EAJren iritzi aldaketa. Tolosak ez du horren beharrik, UEMArekin partaidetza ez dugu inolako beharrik. Kirolari dagokionez, guk kudeatzen dugun arloan, elkarteei dirulaguntza igotzen zaie nabarmenki. “Eskola kirolean” ere igoera nabarmena da eta “Natura kirola programa”ri hasiera emango diogu. Creo que la parte de las inversiones es la más débil de este presupuesto. Reconociendo que pueden ser presupuestos de transición, pido al equipo de gobierno y al Ayuntamiento, a todos los presentes, que hagamos un esfuerzo importante para los próximos años. Hemos criticado, y yo el primero, al equipo de Bildu porque hemos echado en falta en el capítulo de inversiones que no hubiese un Proyecto de Tolosa, de futuro. Aunque los proyectos no se hacen en un día -

podemos entender que este primer presupuesto de esta legislatura no tenga un capítulo importante en inversiones- espero que entre todos seamos capaces de que los próximos presupuestos tengan un capítulo de inversiones importante, aunque los recursos sean escasos. Utilicemos el capítulo de plurianuales para poder iniciar proyectos de futuro. En este sentido, ideas y proyectos no nos van a faltar; hay que hacer un esfuerzo importante. Insisto, la de inversiones es la parte más débil de este presupuesto. Hala ere, orokorrean positibotzat jotzen dugu aurrekontu hau eta baiezkoa emango diogu.”

Lore Agirre Zipitria (EHBILDU): “Harritia uzten didazue denak, benetan. Guk 4 urte pasa ditugu; 4 urte badira 2012an egin genituen lehenengo aurrekontu haietatik. Hauek guretzat oposizioan gaudela lehenengoak dira eta aurrekontuak paperean jaso genituenean zur eta lur gelditu ginen. Nik pentsatzen nuen zuek, kudeaketan adituak zareten horiek, urtetan daramatzazuenak udala gestionatzen, beste nolabaiteko aurrekontuak aurkeztuko zenituztela, eta harritura geratu gara. Hitz askoren artean, esan duzue kajoietan ez zeudela proiekturik, e.a. Baina nik aipatuko dut zer egin duzuen: zeudenak gelditu eta berririk jaso ez. Olatz, aipatu dituzun hainbat proiektu 2015etik datoz; ez dituzue aurrekontuetan jasotzen eta martxan daude. Horien artean, enplegua, 5 peoi horiek bazetozten lehendik eta kontratatzen dira. “Berriz” programak 2016ko aurrekontuetan dirurik ez dauka. Enplegua eta Merkataritza sustapena aipatzen duzue, baina ez dago dirurik, 2015etik datozenak dira. Enpleguan aipatzen dituzu 55 lanpostu horiek, kopuru hori aurretik dator; inbernaderoak aipatu dituzu, baina inbernaderoak eginak daude. Orduan, gaurko eztabaidan ez daukate lekurik. Bestalde, inziso haundiagoa ireki nahi nuke: lurramendirako ekarpena handitu egin behar izan duzue, zuen alderdiak Gipuzkoako Foru Aldundian martxan zegoen hobekuntza plana gelditu egin duelako. Aipatu nahiko nuke orain azken urteetan, Mendekotasunaren arretarako hobekuntza planean, defizita kubritzeko diru ekarpen bat jartzen zuen Diputazioak; 2016ko abendurako jada geldituko ginatke 5 Udal egoitza, eta 5 udal egoitzak horientzat milioi bat euro egongo litzateke. Plana gelditu duzue, 11 udal egoitza zintzilika gaude. Horren ondorioz, Udalak ekarpena areagotu behar izan du. ABEGI aipatu duzu; akordioa guk sinatu genuen eta, ondorioz, diru ekarpena jarri egin behar da, zer gutxiago! Feriara aipatzen duzue, baina azkeneko kreditu aldaketan onartu zenuten, ez orain. Gauza bera Usabalgo harmailaren kasuan. Gure legealdiko azkeneko kreditu aldaketan onartu zen. Orain, soilik, apirileko kreditu aldaketa hartatik Tolosa Lantzen era eraman da eta martxan jartzen duzue, ez besterik. Guzti horiek martxan daude edo pasatakoak dira, ez dira aurrekontuetan jasotzen. Aurrekontu hauek ez daukate proiekturik. Behin eta berriz aipatzen duzue transiziosko aurrekontuak direla, zuen burua justifikatzeko. Aurrekontuak hartu eta proiektuak islatu egin behar dute, urte osoko plangintza jaso behar dute, urte osoko proiektuak. Udal gobernuaren ildo estrategiko bat ez da inprobisazioz egiten, bote pronto, proiektua daukagunez, kreditu aldaketa eginez. Programa aurrekontuek jaso behar dute, beste alderdiek eta baita Tolosarrek ere jakin dezaten. Aurrekontua ikusita ez da asmorik ikusten. Soldatei dagokionean, aipatzearen, esandakoa, beste partida guzti hauetan ez dago ezer berririk, partida gelditu edo jeitsi, eta aipatu organoen ordainsariak igo egin direla. Bai, gobernuko organoen ordainsariak, zuek esaten duzuen bezala, alkate eta alkateordearen soldatarekin, 88.000 euro beharko lukete, eta 128.000 euro jarri dituzue. Kalkulu horien arabera, horrela jasota gelditzen da. Egia da 2015 horretara baldin bagoaz, baina zuek argi esan duzue lehen 3 liberatu zirela eta orain 2 daudela. Hori da aipatzen den gauza bakarra, ea hemen zein den informazioa manipulatu duena! Gauza bera Udal zorrarena. Ez da izan nahita egindako nahasketa. 2011n aipatu zen Udalaren egoera zein zen, ordu arte egin ez zena. Jarri zen zeuden maileguak, ordaindu beharrekoak, eta zor guzti horretan jartzen zen Udalak zeukan ordaintzeko zenbateko guztia. Hori aktetan jasota egongo da. Zor bizia jasotzeko beste kalkulu batzuk egiten dira, eta egia da, eta eztabaida asko izan ditugu. Baina zorra zen ordaintzeko zegoen guztia: Elosegi, Santa Luzia eta zeuden maileguak. Inoiz ez dugu zalantzan jarri soberan zeuden edo ez, baina ordaindu

gabe zeuden. Hori aipatu proiektuei dagokionez.

Bestalde, partehartzeari dagokionez, aipatu duzue hauteskondeetan behin baino gehiagotan partehartzeak, eta aurrekontu hauek dira orain arte izan diren aurrekontu ez partehartzailearenak. Saiatu izan da 2012tik hona aurrekontuetara herritarrak hurbiltzen; 2012an informatu egin zen, gero bide desberdinak ireki ziren ekarpenak jasotzeko. Iaz, jada, 200 mila euro utzi ziren herritarrekin erabakitzekeo zertan gastatu, 2016an diru gehiago jartzeko konpromisoa hartuz, herritarrek ohitzeko, beraietatik jasotako dirua daukagulako aurrekontuetan. Eta aurten ez da ezer egin, ez poltsarik jarri, ez informatu, ez ekarpenak jasotzeko biderik ireki. Are gehiago, iazko aurrekontuetan, partehartzaile zirenak, sartu ziren zenbait proiektu geldirik daude, ez daude martxan. Besteak beste, Alde zaharreko auzo konpostea, Aranburu Jauregiko proiektua, Alde zaharreko exola, e.a.”

Jarraian, Jose Ignacio Asensio Bazterra zinegotziari zuzenduta: “Zurekin harrিতa gelditzen naiz. Lau urte pasa ditugu UEMA gora eta UEMA behera, hondakinak gora eta behera, eta orain onartu egiten dituzu aurrekontu hauek. Galdetu nahi nuke zer asmo daukazuen, azken batean, orain gastu aurrekontuak jaitsi egiten dituzue; gastu maila jaitsi egiten da, behintzat ez da igotzen. Badakigu horrek gaur egun dauden lege muga horiekin zer ondorio ekarri ditzakeen. Esfortzu bat egiten zen beste urteetan hori mantentzen joateko eta, era berean, ez dakit zer asmo edukiko duzuen orain GHKk onartu duen Mankomunitateari pasa behar dieten %igoera horrekin; ez dakit zer ondorio izango duen horrek Udalean. Pentsatzen dut izango duela, azken batean Mankomunitateak udalen ekarpenetatik bizirauten badira. Jarri duzue iaz jarri zenuten zenbateko berdina hondakin sistema berri honentzako. Egia da 2015ean likidazioa askoz txikiago izango dela, oraindik martxan dagoen sistema honek jarritako ekarpenak baino gutxiago suposatuko duela, baina ez dakit igoera hori nahikoa izango ote den %20ko igoera horiek estaltzeko.

Eta bukatzeko, inolako proiekturik ez zegoela aipamenean inguruan, zenbait proposamen luzatu dizkizuegu. Aipatu baita negoziaketarako ateak itxita aurkitu ditugula; bi Ogasun batzorde egin dira eta bigarren batzordean eskatu zen ea aterik irekita egongo ote zitekeen proposamen berriak entzuteko, eta ondorengo eguneko batzordeetan, bai arratsaldekoan eta hurrengo egunekoan ere, aurrekontuaren puntua agertu zen bai Azoketan eta baita Kultura, Festak eta Gaztedia batzordean ere. Bertan, Kultura batzordeko aktan ikusita, Ogasun batzordeko lehendakariak, Begoña Tolosak, aurrekontu proposamenari ekarpenak egiteko hamabost egun izan zirela bi Ogasun Batzordeen artean esan zuela dio eta, ekarpenik ez egitean, ulertu zuela Plenora eramango genituela gure proposamenak.

Ogasun batzordean bertan, Ogasun batzordeko lehendakariak ere aipatu zuen, zuzenean galdetu nuen nik Udalbiltzako gaia, eta aipatu zitzaidan giltzak oso gordeta zeudela. Nahiz eta negoziatorako aukera gehiegi ez izan esku artean, iritsiarazi zaizkizue hainbat proposamen, eta gainera bazetozenak 2015etik, aipatzen ari garenak hainbat batzordeetan, ondo funtzionatzen dutenak eta kajoietan daudenak.

Jarraian, 2016rako aurrekontuen inguruan EHBILDUren proposamenak eta Udal Gobernuak aurkeztutako aurrekontu-proposamenaren inguruan EHBILDUK egiten duen balorazioa azaldu du:

“2016ko aurrekontuetarako proposamenak hauek dira:

- Udalbiltza: urteko ekarpena egitea proposatzen da. Euskal Herriko udal eta udal hautetsiona biltzarra izanik, garrantzitsua deritzogu Tolosako Udala kide izatea. Herrialde guztietako udalerrien artean harremanak sendotu eta nazio eraikuntza bultzatzeko lanean laguntzeko.*
- Emakumeen Txokoa: iaz, herritarrekin batera aurrekontuen osaketan, nabarmen Emakumeontzako gune baten beharra agerian geratu zen. Hala, gaia berdintasun batzordean lantzea erabaki zen. Ondoren, 2016rako aurrekontuetan gunea gauzatzeko*

partida jasoko zela konpromisoa hartuz. Beraz, emakumeontzako gunea sortzeko diru partida jartzea eskatzen da.

- *Kultura: herriko eragileekin lan egiteko partidaren kopurua mantentzea proposatzen da. Ezinbestekoa baita herriko sortzaileei espazioak eskaintzea.*
- *Gizarte Politiketari:*
 - *Gizarte Zerbitzuak landa auzoetara hurbildu, Teknikari baten bitartez, landa auzoetan bizi diren herritarrak erraztasunak izan ditzaten udalak eskaintzen dituen zerbitzuetara heltzeko. Batez ere, hirugarren adineko zerbitzuei dagokienean.*
 - *Udalak lurramendi egoitzara egiten dituen ekarpen gehigarria, egoitzak behar dituen inbertsioetara zuzentzea proposatzen da, eta ez gastu arrunta estaltzera, hori GFaren eskuduntza baita.*
- *Merkataritzari:*
 - *Belaunaldi aldaketako proiektua indartu: urtean zehar aurrera eraman nahiko liratekeen gutxieneko proiektuetarako dirua aurreikusiz.*
 - *Gune biziak, gutxienez, 2015erako aurrekontuetan jasotako kopurua jarri.*
 - *Tokiko moneta proiektua gauzatzeko partida sortzea proposatzen da.*
- *Zumardi Handia: natura eta kirola uztartzen dituen gunea sortzeko proiektua laguntzeko partida indartu*
- *Nafarroa Etorbidearen berrurbanizazioa: bi urteko plangintza egitea proposatzen da. Aurreko legealdian, Oriá kaleko espaloia zabaldu eta berritu zen, erdigunerako sarbidea txukunduz. Orain, erdiguneko etorbide garrantzitsuenetako baten txanda da. 2016rako aurrekontuetan 300.000 € eta 2017ko aurrekontuetan 700.000€ jartzea proposatzen da.*
- *Elosegi Parkea: parkea ireki eta erabilgarri geratzeko, egiteko geratzen diren faseetarako dirua jartzea proposatzen da.*
- *Irisgarritasun eta mantentze planak mantentzea, plana eta egiteko modua.*
- *Egoera txarrean dauden etxebizitzaren merkaturatze plana mantentzea, urteko gutxieneko etxebizitza kopurua eraberritzeko partida osatuz.”*

Guztia hau esanda, nahiko proposamen badira. Benetan, zuek aurkeztutako aurrekontuak osatu eta egitan Tolosako beharrei erantzuten diela uste dugu.”

... *Jokin Azkue Arrastoa (EAJ-PNV) Jose Ignacio Asensiori erantzunez: “ Aurrekontuak trantsiziozkoak direla diozu. Aurrekontuak prebisioak dira, egiterakoan badakigu legeak mugak jartzen dituela eta muga horiek hurrengo urtean desagertu egingo dira, uste dugu, hori denok garbi daukagu. Aurrekontua ez da urte hasieran onartzen den kontu bat, non zenbaki batzuk onartzen diren, eta hor islatzen da urtean udal horrek egingo duena. Hori fikzioa da eta Udalgintzan are gehiago. Gertatzen da, Tolosaren kasuan, guk gastuak eta sarrerak jartzen ditugunean, daukagula zati bat inbertsioetarako eta zati hori mugatuta daukagula. Guretzat lehentasuna Bidebieta eremu hori da. Gauza gehiago egin ditzakegu, gutxiago ere bai, baina gauzak hasi eta onartu behar baditugu hitza eman dugunerako izango da, Bidebietarako. Gastuak jarri alde batetik, eta sarrerak bestetik, eta daukagun aldea eta legeak jartzen duen muga, tarte hori jartzen dugu Bidebietarako. Eta hori da hasierako aurrekontua onartzea. Aurrekontu horrek izango ditu kreditu aldaketak; batzuk horri inprobisazioa deitzen diote. Hemen inprobisazio gutxi egoten da. Kreditu aldaketak, esate baterako, Irunen 11 egingo dira urtean, Tolosak 5. Aurrekontu bat ez da gauza estatikoa, islatzen ditu zuk dituzun asmoak bere mugekin, baina muga horiek kreditu aldaketetan aldatu egiten dira eta dauden aldaketarako tarteak handiagoak dira kreditu aldaketetan hasierako aurrekontuetan baino. Hori da, ikuspegi horretatik, inbertsio puntua ahula da hasierako aurrekontuan, hau da daukagun tarte. Lehentasuna eman diogu esparru sozialari. Badauzkagu zenbait ahulezi; aurre egin behar diogu eta gastu horiek, jarritako eta gero gelditzen zaigun tarte hori, 800 mila eurokoa da. Bageneukan banatzerik, hainbat gauzetako, bi urteetan banatu, e.a., baina ez dugu egin horrela, guretzako*

lehentasunezkoa delako egoera txarrean dagoen auzo horretan obrak exekutatzea. Mugak ditu aurrekontuak eta trantsizioak dira, are gehiago, hemen, inbertsionetan ordaindu behar ditugulako, dauzkagun akordioengatik, Elozegi parkea eta Santa Luziako expropiazioa. Beraz, gure kapazitatea inbertitzeko sarrerak eta gastuak jarritakoen arabera da. 800 mila euro Bidebietarako jarriko ditugunak eta aurten bukatzen den konpromisorako, Elozegi eta Santa Luziarako. Zorpetzeko gaitasunari Rajoyk jartzen dizkio mugak. Hala ere, honi ere ez diogu garrantzi handirik ematen hurrengo urtean hautsi egingo direlako muga hauek.

Proposamenei helduz, nahiko genuke gure posizioa azaldu. Udalbiltzaren inguruan, argumentuetan jartzen den pisua Nazio eraikuntza aipatzen da. Honetan, goi mailan gutxienezko oinarri batzuk adostu beharko genituzke eta gutxienezko oinarri horiek adostu eta gero, bai eragile sozial eta politikoekin, erabaki beharko genuke jarri behar diren diruak eta non jarri behar diren. Orain zer alderdiek gobernatzen duen arabera ematen da, elkarte bati edo bestei. Adosten badugu, gu prest gaude. Gure baldintza da gutxienezko oinarri horiek nazio eraikuntzarako adostea. Hori adostu bitartean ez dugu dirurik jarriko.

Emakumearen txokoaren inguruan, gai hau sakontasunez aztertu egin behar dela uste dugu. Dirua jarri aurretik, debateak egin batzordeetan, eztabaidatu eta horren baitan proiektu zehatz bat egin. Proiektu horrek kostu batzuk izango ditu, behar batzuk islatuko dira eta koste horren baitan aurrekontuetan hitz egiteko prest gaude. Bestalde, eskualdeko proiektu bat bezala planteatzen bada, beste arloetan egiten den bezala, turismo, merkataritza, industria, e.a., eskualde mailan erabaki beharko da. Ezin da esan emakumearen txokoa martxan jarri behar dela eta diru bat jartzeko besterik gabe. Egin behar den foroan eztabaidatu, proiektua garatu eta horren baitan gauzatzen bada, gu ados gaude.

Bestalde, Kultura esparrua herriko eragileekin lan egiteko partidaren kopurua mantentzea proposatzen da. Horrela esanda badirudi kendu egiten dela. Guk hori ez dugu egiten; guk errealitatean gertatzen dena islatu dugu. Bestalde, Gizarte Politiketan lurramendiren kasurako, aurreko Foru Aldundian agintean zeudenak planteamendu bat egin zuten, erakunde autonomoa sortu, Kabia sortu eta dauden Udal Zaharren egoitzak transferitzen joan. Proiektu hori, bere momentuan aplikatzen zen horretan, Tolosa ez zen sartzen 2018ra arte. Beraz, egin ez dena nahi da egin orain lurramendin. Guk planteatzen dugu inbertsioak egitea eta ohiko gastuei dagokion defizita behintzat dirua jartzea. Gure ustetan pena merezi duen inbertsioa da. Bestalde, Merkataritzan, "Berriz" programa hori, belaunaldiz belaunaldi aurrera egiteko programari dagokionez, kontua ez da dirua jartzea, gestionatzea baizik. Dauden konpromisoei aurre egingo diegu; zailtasuna da hori kontrolatzea. Eta hori lortzen badugu, programa joango gara osatzen eta indartzen; horren alde gaude gure programan azaltzen den moduan. "Gune Biziak" proiektuan, denda itxiak erabiltzearen proiektuari dagokionez, ikusi dugu proiektua Olot herritik hartutako proiektua dela eta bertan bi urte daramatela gauzatzen eta gu lau hilabete besterik ez indartzen. Lortu ditugun emaitzak oso mugatuak dira, askoz gehiago gastatu dugu komunikabideetan programan baino. Programa indartzen den heinean, dirua jarriko dugu. Beste azken ohar horietan, agian balio du aurretik esan diodana Jose Ignaciori, gu Nafar etorbidearen alde gaude, honen proiektua 2011tik prest dago, uste dugu ekonomia eta enplegua sustatzeko eta irisgarritasun ikuspegitik egin beharreko obra dela. Gure legealdiko programa ikusi besterik ez dago eta hori gauzatuko dugu eta pozten gara ados egotea. Elozegi Parkeari buruz esan gure ustetan aurreko legealdia ondo kudeatutako gaia izan dela; zati askotan banatuta dago. Elozegi parkea datorren urtean ordaindua izango dugu, lehenengo bi faseak abian jarrita daude eta gure asmoa da kreditu aldaketaren bidez eta dirua daukagun heinean garatzen joatea urtez urte. Guretzat ere garrantzia dauka proiektua amaitzea.

Aipatzen den proposamena, Iresgarritasun eta mantentze planak mantentzea, plana bera eta egiteko modua. Esaldi horren esanahia, ez dakit, baina gure asmoa da irisgarritasun eta mantentzen planekin jarraitzea. Gainera, saiatzen gara horren berri ematen Obra

batzordea egiten dugun bakoitzean, nahiz eta aktuzio txikiak izan, eta jarraitzeko asmoa dugu. Eta azkeneko puntua, Egoera txarrean dauden etxebizitzak merkaturatze plana mantentzea: hor dirulaguntza lerro bat irekita dago, aurten martxan jarria. Egoera txarrean dauden etxebizitzak berritzeko obraren kosteak guk ordaintzen ditugu eta koste horiek jabeak itzultzen ditu alogerak kobratzen dituen neurrian. Bost etxebizitza jarri dira eta teknikariek ebaluatu egin nahi dugu. Obrak egiten ari dira, alogeran jarri eta funtzionamenduaren baitan, egokitzapen batzuk beharko direnez, martxan jarriko dugu. Horregatik ez dugu jarri aurrekontuetan. Hauek dira aipatu diren kontuen inguruan erantzunak. Hasiera batean, esan duzue zenbait kontu lehendik zetozela, Enplegu plana, Santa Luziako baratzena, Feriarena, harmailena, hori ere Tolosa Lantzen islatu egin da; exekutatzeko hasiko gara, ez besterik. Aipatu da inprobisazioa, ez dakit aipamen hori zergatik egiten duzuen. Aurreko batean, Ferialeko sabaia berritu behar zenean, irudia eman zen inprobisazioarena. Hori ez da horrela, ituteak areagotu egin dira, zortzi urteetan kexa asko izan dira eta, kasu honetan konpondu egin behar dira ituteak. Ez nuke lotuko Kreditu Aldaketa inprobisazioarekin, ezin da lotu. Adierazi nahi da gauzak egiten ari garela era desegituratuan, eta ez da horrela. Hor dago gure legegaldiko programa, han agertzen dira guk legegaldi honetan egin nahi ditugun proiektuak. Gertatu liteke bakarren batean kale egitea, zenbaitetan azalpenak eman beharko dizkiegu herritarrei. Gerta liteke zenbait aktuzio halabeharrez egin behar izatea, beste behar batzuk sortzen direlako eta mugatu guk egin nahi ditugun beste batzuk. Gure plana legegaldiko programan dagoena betetzea da eta bertan dago zehaztua egingo duguna.”

... Jose Ignacio Asensio Bazterra (PSE-EE): “Legeak mugak jartzen dituela! Horrekin erabat ados nago. Baina, hala ere, ez dago gaizki azaltzea zein izango diren gure lehentasunak, aurkeztu eta eztabaidatu. Eta hurrengo aurrekontuei begira aztertzea eta egokitzea.

Lore Agirrek UEMAr buruz esan didanak ez dauka zentzurik. Nik esan dut ez nagoela ados gai horrekin eta horrela esan dut. Bestaldetik, Hondakinen kudeaketaren inguruan sistema aldatzeko gara, urtarrilean izango da aldaketa eta gu erabat ados gaude.

GHKk egin duen igoera eta zer eragina izango duen Mankomunitateak erabaki beharko du. Gogoratu GHK-k duen egoera zuen kudeaketarengatik izan dela; azkeneko hiru urteetan ez duzelako aurrekonturik aurkeztu eta galerak, jada, 40.000.000 €koak direlako. Hori izan da aurtengo igoera horren arrazoia. Eta KABIaren asuntza aipatu da, baina gauza bera gertatu da. Zuek eta gure artean egindako akordio bat izan zen, baina ez dago ez aurrekonturik Aldundian, ezta kudeaketa sistemarik ere. Hori da egiten duzuen politika instituzioetan. Azkenik, erabat ados nago Gizarte zerbitzuen lehentasunarekin; aurrekontuetan bermatzen dira, aurreko aurrekontuan baino diru gehiago dago eta oso ondo bideratuta. Beraz, nire bozka baiezkoa izango da.”

... Lore Agirre Zipitria (EHBILDU): “Pozten naiz egindako ekarpen guzti hauek begi onez ikusten dituzuelako. Izan ere, Olatzek aipatu du aurrekontuak trantsiziozkoak direla, arrazoituz kajoietan ez zegoela proiekturik. Hauek denak batzordeetan bazeuden, departamentuetan bazeuden, aurrekontuetan sartzeko moduan zeuden. Hori da agertu nahi nuena. Ez dituzue sartu. Kudeatzeko estilo ezberdinak dira, zuek zurea eta guk gurea. Berritzaileak, administrazio publikoan herritarren dirua kudeatzen ari gara. Gure ustez, ildo orokorrak behintzat jaso behar dituzte hasierako aurrekontuak, nahiz eta hasierako aurrekontuak izan, eta horrela egin da azken lau urteetan. Zuek ez dituzue jasotzen; nahiago duzue justu justuko aurrekontuak egin eta ondoren doitzen joan; estilo kontua. Behintzat ikusten duzue bazeudela proiektuak eta nahi izango bazenuten bazenituzten sartzeko aurrekontuetan, eta orduan aldeko bozka emango genuen. Baina horrela, huts-hutsean, ezin diogu baiezkoa eman aurrekontu hauei.

Beste bi puntualizazio Jose Ignaciori, eztabaidetan sartu gabe. GHKko igoeraren arrazoia: gogorarazi nahi dizkizut “swap”k, aurreko legegaldian onartu zenituztenak, sangria guzti horiek zer suposatzen ari zitzaizkigun, intzineradora egiteko ordainketa horiek zer

suposatzen digun. Eta KABIakoa gauza bera. KABIAn bazegoen aurrekontua, gero gehiago ez da egon, eta ezazue esan kontrakorik, prentsan dago, gehiago ez dago eta Lasarte ez zen sartu legealdi amaieran, ez zenutelako onartu nahi izan kreditu aldaketa hori, bestela bazegoen nahiko aurrekontua. Eta lurramendirako aipatzen nuena hori da, ez da akordioaren faltagatik, baizik eta milioi bat euro zegoelako defizita kubritzeko Udal egoitzentzat, eta Udal egoitzak Diputaziora barneratzen baldin badira, milioi bat euro horiek egoitza gutxiagoentzat dira. Hamaika egoitzen artean banatu beharrean, bost egoitzen artean banatuko dira, beraz defizita gutxiago jasa beharko luke Tolosako udalak. Gogoratu Diputazioaren eskuduntza dela egoitza eta ondorioz diru hori beste zerbaiterako erabili genezakegula. Azkenean, estilo kontua, Kudeatzeko modu desberdinak eta hortxe daukagu talka”.

Jokin Azkue Arrastoa (EAJ-PNV): “Foru Aldundiko sarreren inguruan zuk esandakotik pertzepzioa okerra atera litekeelako: Aldundiko sarrerak 2015ean 2.876.200 eta 2016rako aurreikuspena 3.012.000 €.”

... Alkatea: “Eztabaidan argi gelditu da Gobernu honen lehenengo aurrekontua dela. Huteskundearen kanpainan herritarrekin egindako partaidetza prozesu baten bitartez egindako programa baten oinarrituta dago: 400 ekarpen baino gehiago jasota eragile desberdinekin bilerak egin ondoren. Asmoa da Tolosak bere etorkizuna eraikitzeke lidergoa berreskuratzea, guztion interesak era efektiboan kudeatzea, proiektu berriak mahai gainean jartzea, partaidetza efektibo baten oinarriak ezartzea eta etorkizun jasangarriago baten ardatzak sendotzea. Ideia berriak ekarriko dituen Gobernu Proaktiboa, bost lehentasun markatuz: Tolosako ekonomia eta enplegua suspertzea; Gizarte zerbitzuak bermatzea; Tolosak behar dituen azpiegiturak kudeatzea; gure kultura eta hizkuntzaren defentsa eta Gobernu ona eta parte-hartzea. Eta guzti hori, balore jakin batzuetan oinarrituta, inportanteak baitira baloreak. Aipatu egingo ditut: gardentasuna, gertutasuna eta parte-hartzea; pertsonetikiko konpromisoa; berdintasuna; jasangarritasuna; bakea eta elkarbizitza. Aurkeztu berri dugun aurrekontua koherentea, egingarria eta Tolosaren beharrei erantzungo die. Gure eredia elkarlanean dago oinarrituta. Horregatik herritarren iritzia jasotzeko entzute aktiboan oinarrituko gara, talde politiko ezberdinen adostasunak ere bilatzen saiatuko gara, hori delako herritarrak nahi eta eskatzen dutena, hika-mika politikotik urrun, herria lehenetsiz, kudeaketa zorrotza eta arduratsua eginez, gardentasunez, gertutasunez eta umiltasunez.”

Datorren urteko aurrekontu orokorraren proiektua aurkeztu da bere dokumentazio osoarekin. Udal aurrekontuarekin batera, aurrekontu osoa osatzen dute erakunde hauen aurrekontuak: lurreamendi Egoitza, Tolargi, S. L., Erretengibel, S. A., Tolosa Lantzen, S. A, Tolosa Lotzen, S.A., Tolosa Gasa, S.A., Bateratua.

Era berean, proposatzen da udal arautegian fakturazio elektronikoari buruzko ondorengo artikulua txertatzea. Proposamenak honela dio:

“ V KAPITULUA – FAKTURA ELEKTRONIKOAK JASOTZEKO PROZEDURA

38 Artikulua – Eremu objetiboa

1. Udalari ondasunak entregatu edo zerbitzuak egin dizkieten hornitzaile guztiek sortu eta igorri dezakete faktura elektronikoa. Hornitzaile horiek behartuta egongo dira faktura elektronikoa erabiltzera eta hura dagokion sarrera-puntu orokorrean aurkeztera, entitate hauek direnean:

a) Sozietate anonimoak

b) Erantzukizun mugatuko sozietateak

c) Espainiar nazionalitatea ez duten pertsona juridikoak eta nortasun juridiko gabeko entitateak

d) Zerga araudiak ezarritakoaren arabera, Espainiako lurraldean egoiliar ez diren entitateen sukurtsalak eta establezimendu iraunkorrak

e) Aldi baterako enpresa elkarteak

f) Interes ekonomiko taldeak, interes ekonomikoko Europako taldeak, pentsio funtsak, arrisku-kapitaleko funtsak, inbertsio funtsak, aktiboak erabiltzeko funtsak, hipoteka-merkatua erregularizatzeko funtsak, hipotekak titulizatzeko funtsak edo inbertsioak bermatzeko funtsak.

2. Dena den, 5.000 euro bitarteko fakturak salbuetsita geratzen dira faktura elektronikoa erabiltzeko obligaziotik eta hura dagokion faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrean aurkeztetik, ondoko kasuetan izan ezik:

a) Hornitzaileak edozein unetan behartuta badaude fakturaren bat formatu elektronikoa egitera aurreko paragrafoan ezarritako zenbatekoa gainditzeagatik, faktura elektronikoa erabili beharko dute, zenbatekoa edozein dela ere, hortik aurrerako ondasun entrega eta zerbitzu prestazio guztietan.

b) Udalak edota organismo autonomoek kontratazio prozedurak bultzatu dituztenean, Hirugarren apartatuaren 1. paragrafoan aipatu diren hornitzaileek faktura elektronikoa egin eta bidaltzeko obligazioa izango dute baldin eta esleipen zenbatekoa 5.000 euro baino handiagoa bada, kasu bakoitzean fakturatzen den zenbatekoa zeinahi dela ere. Horretarako, hornitzaileek faktura elektronikoetan erabili beharko dituzten identifikazio kodeen berri baldintza pleguetan emango da.

3. Udalaren eta bere organismo autonomoaren identifikazio kodeak hauek dira:

Tolosako Udala: L01200718
Iurreamendi egoitza: LA0004882

39 Artikulua – Fakturen sarrera puntua

Udalaren faktura elektronikoen sarrera puntua Foru Aldundiko sarrera-puntu orokorrara izango da. Hau da helbidea:

<https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua>

40 Artikulua – Faktura elektronikoen eta haien sinadura elektronikoen formatua

Faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorraren bitartez bidaltzen diren faktura elektronikoa eta sinadura elektronikoa une oro Gipuzkoako Foru Aldundiak jasotako formatura egokitu beharko dira.

41 Artikulua – Fakturaren kontabilitate erregistroa kudeatzea

1. Tolosako Udalaren fakturen kontabilitate erregistroa kudeatzea Kontu-hartzaitza Zerbitzuari dagokio.

Erregistro hori kontabilitateko informazio sistemarekin lotuta edo bertan integratuta egongo da. Ondorio hauetarako, udal honetan eta bere organismo autonomoetan SAREKO aplikazioko fakturen erregistroa izango da aipatutako erregistroa.

2. Faktura jasotzen duen administrazio-erregistroak Kontu-hartzaitza Zerbitzura bidaliko du berehala, fakturen kontabilitate erregistroan haren oharra egin dezan.

Sarrera-puntu orokorrean aurkeztutako faktura elektronikoa elektronikoki bidaliko dira, puntu horretan izango den zerbitzu automatiko baten bitartez, kasuan-kasuan dagokien kontabilitate erregistroa, fakturan agertzen den kontabilitate bulegoaren arabera. Fakturan adierazi behar da zer administrazio-organori dagoen zuzenduta, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak, hogeita hamahirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz.

3. Fakturen kontabilitate erregistroan faktura baten oharra hartzeak berekin ekarriko du faktura horri identifikazio-kode bat esleitzea kontabilitate erregistroan. Faktura elektronikoen kasuan, kode hori faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrari jakinaraziko zaio.

4. Kontu-hartzaitza Zerbitzuak dagokion organo eskudunari bidaliko dio faktura, ondasun edo zerbitzu emateari adostasuna emateko prozedura tramita dezan eta obligazioa onartzeko beharrezkoak diren gainerako jarduerak egin ditzan.

5. Dagokion organo eskudunak obligazioa onartzen duenean, proposamenaren edota ordainketa-aginduaren tramitazio kontableak faktura (edo fakturak) identifikatuko ditu, fakturen kontabilitate erregistroan esleitutako identifikazio kodeen bidez.”

2015/1278 Alkatetza Dekretuan onartutakoaren arabera, 19. artikulua ere aldatzea diktaminatzen da. Honen arabera, 60.000 euro beherako gastuak baimentzeko eta erabiltzeko eskumena Alkateari dagokio (lehen 18.000 eurotan zegoen gehienezko kopurua). Honela geratzen da artikuluko b) eta c) puntuak:

“19.2.- Gastuak baimentzea eta xedatzea honako eskumen-erregimen honen bidez egingo da:
...

1. Gobernu Batzordearen eskumena izango da onartzea eta erabiltzea harako 60.000,00 euro baino kopuru handiagokoak izan eta Aurrekontuko baliabide arrunten %10 gaintzen ez duten gastu haiek, lau urte baino gehiago irauten ez duten urte bat baino gehiagorako diren gastuak barne, baldin eta urte guztietan metatutako kopuruak gaintzen ez badu ez

aipatutako portzentajea, aurrekontuetako baliabide arruntei dagokienean, ez aipatutako kopurua.

2. *Alkate-Lehendakariaren eskumena izango da baimentzea eta erabiltzea gehienez kopuru hau duten gastuak: 60.000,00 euro.*

...”

Hori guztia kontuan izanik eta Ogasun batzordearen diktamena kontuan hartuz, Udaltzako, EAJ-PNV (9) eta PSE-EE(1) alderdien aldeko botoekin eta EHBILDU (7) alderdien aurkako botoekin, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehen.- 2016. ekitaldirako Udal Sektore Publikoaren Aurrekontu Orokorra eta Aurrekontua gauzatzeko araua, proposatutako aldaketarekin, haseraz onartzea. Bere laburpena kapituluka hau da:

- **Tolosako udaleko** aurrekontua kapituluka:

SARRERAK			GASTUAK		
KAP.	IZENA	EUROAK	KAP.	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	5.630.083,00	1	Pertsonal Gastuak	8.150.464,00
2	Zeharkako zergak	737.000,00	2	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak	8.604.134,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	4.084.565,00	3	Finantza- Gastuak	164.456,00
4	Transferentzia arruntak	13.164.582,00	4	Transferentzia arruntak	3.957.751,00
5	Ondare sarrerak	739.770,00	6	Inbertsio errealak	2.425.000,00
6	Inbertsio errealen besterenganaketa	100.000,00	7	Kapital- Transferentziak	189.142,00
7	Kapital Transferentziak	6.000,00	8	Aktibo finantzarioak	0,00
8	Aktibo finantzarioak	0,00	9	Pasibo finantzarioak	971.053,00
9	Pasibo finantzarioak	0,00			
	GUZTIRA	24.462.000,00		GUZTIRA	24.462.000,00

- **Iurreamendi egoitzako** aurrekontua kapituluka:

SARRERAK			GASTUAK		
KAP.	IZENA	EUROAK	KAP.	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	0,00	1	Pertsonal Gastuak	1.768.100,00
2	Zeharkako zergak	0,00	2	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak	3.357.900,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.693.450,00	3	Finantza- Gastuak	0,00
4	Transferentzia arruntak	3.457.050,00	4	Transferentzia arruntak	0,00
5	Ondare sarrerak	500,00	6	Inbertsio errealak	25.000,00
6	Inbertsio errealen besterenganaketa	0,00	7	Kapital- Transferentziak	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	8	Aktibo finantzarioak	0,00
8	Aktibo finantzarioak	0,00	9	Pasibo finantzarioak	0,00
9	Pasibo finantzarioak	0,00			

OHIZKO OSOKO BILKURA
2015.12.29

	GUZTIRA	5.151.000,00		GUZTIRA	5.151.000,00
--	----------------	---------------------	--	----------------	---------------------

• **Erretengibel, S.A.ko** aurrekontua kapituluka:

SARRERAK			GASTUAK		
KAP.	IZENA	EUROAK	KAP.	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	0,00	1	Pertsonal Gastuak	150.170,00
2	Zeharkako zergak	0,00	2	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak	50.453,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.500,00	3	Finantza- Gastuak	6.535,00
4	Transferentzia arruntak	280.858,00	4	Transferentzia arruntak	45.000,00
5	Ondare sarrerak	30.000,00	6	Inbertsio errealak	78.142,00
6	Inbertsio errealen besterenganaketa	0,00	7	Kapital- Transferentziak	111.000,00
7	Kapital Transferentziak	189.142,00	8	Aktibo finantzarioak	0,00
8	Aktibo finantzarioak	0,00	9	Pasibo finantzarioak	60.000,00
9	Pasibo finantzarioak	0,00			
	GUZTIRA	501.500,00		GUZTIRA	501.500,00

• **Tolargi S.L.ko** aurrekontua kapituluka:

SARRERAK			GASTUAK		
KAP.	IZENA	EUROAK	KAP.	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	0,00	1	Pertsonal Gastuak	535.500,00
2	Zeharkako zergak	0,00	2	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak	658.300,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.374.000,00	3	Finantza- Gastuak	0,00
4	Transferentzia arruntak	0,00	4	Transferentzia arruntak	0,00
5	Ondare sarrerak	0,00	6	Inbertsio errealak	120.000,00
6	Inbertsio errealen besterenganaketa	0,00	7	Kapital- Transferentziak	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	8	Aktibo finantzarioak	0,00
8	Aktibo finantzarioak	-60.200,00	9	Pasibo finantzarioak	000
9	Pasibo finantzarioak	0,00			
	GUZTIRA	1.313.800,00		GUZTIRA	1.313.800,00

OHIZKO OSOKO BILKURA
2015.12.29

• **Tolosa Lantzen S.A.ko** aurrekontua kapituluka:

SARRERAK			GASTUAK		
KAP.	IZENA	EUROAK	KAP.	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	0,00	1	Pertsonal Gastuak	60.800,00
2	Zeharkako zergak	0,00	2	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak	353.800,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	57.000,00	3	Finantza- Gastuak	0,00
4	Transferentzia arruntak	0,00	4	Transferentzia arruntak	0,00
5	Ondare sarrerak	456.000,00	6	Inbertsio errealak	239.400,00
6	Inbertsio errealen besterenganaketa	0,00	7	Kapital- Transferentziak	0,00
7	Kapital Transferentziak	141.000,00	8	Aktibo finantzarioak	0,00
8	Aktibo finantzarioak	0,00	9	Pasibo finantzarioak	0,00
9	Pasibo finantzarioak	0,00			
	GUZTIRA	654.000,00		GUZTIRA	654.000,00

• **Tolosa Gasa S.A.ko** aurrekontua kapituluka:

SARRERAK			GASTUAK		
KAP.	IZENA	EUROAK	KAP.	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	0,00	1	Pertsonal Gastuak	39.234,00
2	Zeharkako zergak	0,00	2	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak	286.860,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	507.824,00	3	Finantza- Gastuak	0,00
4	Transferentzia arruntak	0,00	4	Transferentzia arruntak	0,00
5	Ondare sarrerak	300,00	6	Inbertsio errealak	9.000,00
6	Inbertsio errealen besterenganaketa	0,00	7	Kapital- Transferentziak	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	8	Aktibo finantzarioak	0,00
8	Aktibo finantzarioak	-173.030,00	9	Pasibo finantzarioak	0,00
9	Pasibo finantzarioak	0,00			
	GUZTIRA	335.094,00		GUZTIRA	335.094,00

• **Tolosako Lotzen S.A.ko** aurrekontua kapituluka:

SARRERAK			GASTUAK		
KAP.	IZENA	EUROAK	KAP.	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	0,00	1	Pertsonal Gastuak	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	2	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak	10.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	0,00	3	Finantza- Gastuak	0,00
4	Transferentzia arruntak	10.000,00	4	Transferentzia arruntak	0,00
5	Ondare sarrerak	0,00	6	Inbertsio errealak	0,00
6	Inbertsio errealen besterenganaketa	0,00	7	Kapital- Transferentziak	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	8	Aktibo finantzarioak	0,00
8	Aktibo finantzarioak	0,00	9	Pasibo finantzarioak	0,00
9	Pasibo finantzarioak	0,00			
	GUZTIRA	10.000,00		GUZTIRA	10.000,00

• **Udal Sektore Publikoaren aurrekontu bateratuko** aurrekontua kapituluka:

SARRERAK			GASTUAK		
KAP.	IZENA	EUROAK	KAP.	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	5.620.383	1	Pertsonal Gastuak	10.704.268
2	Zeharkako zergak	737.000	2	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak	12.555.347
3	Tasak eta bestelako sarrerak	7.141.439	3	Finantza- Gastuak	170.991
4	Transferentzia arruntak	16.181.632	4	Transferentzia arruntak	3.271.893
5	Ondare sarrerak	1.047.70	6	Inbertsio errealak	2.896.542
6	Inbertsio errealen besterenganaketa	100.000	7	Kapital- Transferentziak	111.000
7	Kapital Transferentziak	147.000	8	Aktibo finantzarioak	0
8	Aktibo finantzarioak	-233.230	9	Pasibo finantzarioak	1.031.253
9	Pasibo finantzarioak	0			
	GUZTIRA	30.741.294		GUZTIRA	30.741.294

Bigarren.- Aurrekontu Orokorra hamabost eguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan ipintzea, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, Aurrekontu Orokorra behin betiko onartua

konsideratuko litzateke.

4. 2016ko ekitaldirako Tolosako udaleko eta lurreamendi Egoitzakoa plantilla onartzea.

4. Aprobación de la plantilla orgánica del Ayuntamiento de Tolosa y de la Residencia lurreamendi para el año 2016.

Toki Erakundeen Oinarriak erregulatzen dituen legeak 90. artikulua eta Testu Bateratuak 126. artikuluan diotenaren arabera, EAJ-PNV (9) eta PSE-EE alderdien (1) aldeko botoekin eta EHBILDU (7) alderdiaren abstentzioarekin, Udalbatzak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehen.- 2016. ekitaldirako Plantilla, Udalarena eta lurreamendiarena, **onartzea** aktaren 1. eranskinean agertzen diren bezala.

Bigarren.- Plantilla onarpenari dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Ediktu taulan argitaratzea.

Partehartzeak:

... Lore Agirre Zipitria (EHBILDU): *“lurramendiko Juntan ez da tratatu plantilla eta lanpostuen zerrendaren gaia. Agian ez dago tratatu beharrik, ez du Juntaren onespenerik behar, baina aurreko legealdian Juntara ematen zen gaia zen. Oraingoan ez da tratatu eta batez ere aipatzen dut lurramendiren kasuan lanpostu zerrenda eta plantilla ez datoz bat izenei dagokienean.”*

... Udal Idazkariak erantzun dio zuzenduko direla. Zuzendaritza batzordean tratatu beharrekoa zela baina aurretik egin zen eta gero pertsonal batzordean aztertu zen. Desegokitasun bat egon dela horretan. Baina aurrekontuekin batera onartu behar dira; bestela ezin dira onartu aurrekontuak. Dena den, Juntan erabaki beharreko gai da.

... Alkatea: *“Era guztietara, orain onartuta badaude ere, hurrengo Juntara eman ditzakegu eta aldaketarik egin beharko balitz proposatuko genuke beste pleno batean.”*

... Lore Agirre Zipitria (EHBILDU): *“Zalantzarik gabe, urtean zehar ere egin ditzakegu aldaketa horiek baina kezagarria da: aurrekontuak Ogasun batzordetik edo Juntatik ez pasatzea bezala da, eta zuzenean plenoa ekartzea; kezagarria.”*

5 Tolosako Udaleko eta lurramendi Egoitzako 2016 urterako lanpostuen zerrenda onartzea.

5. Aprobación de la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Tolosa y de la Residencia lurreamendi para el 2016.

Toki Erakundeen Oinarriak erregulatzen dituen legeak 90. artikuluan eta Testu Bateratuak 126. artikuluan diotenaren arabera, EAJ-PNV (9) eta PSE-EE (1) alderdien aldeko botoekin eta EHBILDU (7) alderdiaren abstentzioarekin, Udaltzakoak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehen.- Onartzea Udalari eta lurreamendiri dagozkien lanpostuen zerrenda, 2016ko plantillei egokituak, aktari lotzen zaion 2. eranskinaren arabera.

Bigarren.- Lanpostuen zerrendaren onespenerari dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Ediktu taulan argitaratzea.

6. Gardentasunaren udal atarian argitaratzeko ereduak dokumentuak onartzea.

6. Aprobación de los modelos de documentos a publicar en el portal municipal de transparencia.

Abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, bere 6.1 artikuluan esaten du Tokiko Administrazioa osatzen duten erakundeek obligazioa dutela beren antolakuntza egitura argitaratzeko, organo desberdinetako arduradunen identifikazioa eta beren profil eta ibilbide profesionala jasoz.

Era berean, abenduaren 9ko 19/2013 Legeko 8.1 h) artikulua esaten du, tokiko arduradunen ondasun eta jardueri buruzko urteko aitorpenak argitara emateko obligazioa dutela apirilaren 2ko Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 75.7 artikuluan aurreikusten den bezala.

Gardentasun Legearen Bederatzigarren Azken Xedapenak tokiko erakundeei gehienez jota bi urteko epea ematen die, 2015eko abenduaren 10ean amaitzen dena, Lege horretako I. tituluan jasotzen diren obligazioetara egokitzeko. Legeko aipatu 6 eta 8 artikulua I. tituluan jasotzen dira, beraz, aipatu data horretan derrigorrez bete beharrekoak izango dira.

Tolosako Udala, Tokiko Administrazioa den heinean, behartuta dago 2015ean Tolosako Udaleko Gardentasun Ataria abian jartzera.

Hautatutako karguen ondasun eta jardueri buruzko aitorpenei dagokionez, baita curriculum vitae edo ibilbide profesionalari dagokionez ere, jasotzen da egun ere Tokiko Oinarrien Legeak exijitzen dituen ondasun eta jardueren informazioa.

Hala ere, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legeak agindu bezala publizitatea emateko obligazioei egokitutako dokumentuaren ereduak ez da udal batzarraren erabakira ezarri.

Gardentasun Atarian argitaratzen diren ereduak dokumentuak (ondasun eta jardueri buruzkoa eta curriculum vitae), Idazkaritza Departamentuak diseinatu ditu beste Udal eta erakundearen ereduarekin oinarrituz, esaterako, interes-gatazka arazoetako estatu mailako

bulegoaren ereduetan, Gardentasun Legearen 8.1 h) artikulua berak horra birbidaltzen baitu, Udal bakoitzak eredu propioa ez duela.

Gardentasun Lege horretatik eratorritako publizitate obligazioak legeak aipatzen duen gehieneko epe barruan bete ahal izateko, beharrezkoa da ereduak dokumentuak formalki onartzea eta aipatutakoa bete ahal izan dadin prestatzea, kontuan hartuta izaera pertsonaleko datuak jasotzen dituztela.

Hautatutako karguen ondasun, jardura eta ibilbide profesionalari buruzko datu pertsonalak argitara emateko obligazioa lege mailako arau batetik sortzen da eta horrek dakar abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko, Izaera Pertsonaleko Datuak Babestari buruzko 6.1 artikuluan aurreikusten den salbuespena aplikatzea: datuen titularraren ageriko baimenik ez da behar datu horien tratamendurako, legeak hala agintzen badu.

Guzti honengatik, Herritarrekiko Harremanak, Partaidetza eta Informazioaren Gizartea batzordeak abenduaren 15ean jaulkitako diktamena aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenik: Honako ereduak dokumentuak onartzea:

- Kargu hautatuaren curriculum vitae edo ibilbide profesional indibiduala argitara emateko formularioa. I. eranskina.
- Kargu hautatuaren ondasunen aitorpen indibiduala argitara emateko formularioa. II. eranskina.
- Kargu hautatuaren ordezkaria politikoko kargudunen jasotako ordainsariak argitara emateko formularioa. III. Eranskina.

Bigarrenik: Honako jardura-arauak ezartzea:

- Udal Batzarraren akordio hau onartu eta argitara emanda, udal zerbitzu eskudunak beteko dituen ondasun eta jarduren aitorpen indibidualen formularioak, Ondasun eta Jarduren Udal Erregistroan jasota dagoen informazioa kontuan hartuta.
- Gardentasun atarian argitara eman baino lehen, formulario bakoitzean ageri den informazioa pertsona titularrarekin kontrastatuko da, agintaldiaren hasieran eginiko aitorpenetik aldaketaren bat gertatu izatekotan berori eguneratu ahal izan dadin Ondasun eta Jarduren Udal Erregistroan.
- Udal Batzarraren honako akordio hau onartu eta argitara eman ondoren, udal zerbitzu eskudunak beharrezko datuak eskatuko ditu bakoitzaren curriculum vitae-a ereduari egokituta bete ahal izateko. Zinegotzi bakoitzak idatziz emango du berari dagokion informazio profesionala.
- Formularioen egitura ezin da aldatu edo aldaketarik egin, beraz, dagokion laukitxoak hutsik agertu beharko da daturik ez badago.

Hirugarrenik: Akordio hau argitara ematea udalaren web atarian, baita Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere, denek jakin dezaten eta ondorioetarako.

Partehatzea:

... Alkateak: *"Batzordean pasako gaia da erabateko adostasunez, baina azaltzearen web orrian azalduko diren dokumentuak Gardentasun lege horrek eskatuta. kargu hautatuaren curriculum-a alde batetik. Eta bestalde, kargu hautatuaren ondasunen aitorpen indibiduala*

eta ordezkariak politikoko kargudunak jasotako ordainsariak. Horrela norbaitek zalantzarik baldin badu web orrian sartu eta zuzenean begiratu ditzake.”

7. Galderak eta eskaerak.

7. Ruegos y preguntas.

- ... Ibai Iriarte San Vicente (EHBILDU): *“Gaur egunkarian irakurri dugun albiste baten inguruan nire kezka agertu nahi nuke. Irurako herritik datorren berri bat eta udal honetako hautetsi batekin lotuta dagoen albistea delako. Jakin nahiko genuke horren inguruan zer dagoen edo ez dagoen, bertan nahiko salaketa gogorra egiten baita. Gainera, Gardentasunari eta Partehartzeari eragiten die zuzen-zuzenean eta, hemengo hautetsi baten gaia denez, informazioa eskatu nahiko genuke.”*
- ... Alkatea: *“Irurako web orriaren inguruan EHBILDUK egiten duen salaketak ez du batere fundamenturik eta ikusi dudanean erabateko haserrea suposatu du. Irurako Udaleko web orria berritzeko alkateak proposamen ezberdinak eskatzen ditu eta bere ardura den bezala proposamen horiek aztertu ondoren Irurako herriarentzat egokiena den proposamena aukeratzen du; ez merkeena, ez garestiena, egokiena baizik. Proposamenak aztertzen ditu, proposameneko orduak, baldintzak, e.a. begiratzuz, alkateak egin behar duen bezala. Kontratazioaren kopuruari erreparatuz, ekarpena txikia da, legez alkatearen ardura da erabakia hartzea. Ez du lehiaketa publikorik antolatu behar erabaki hori hartzeko, ezta gutxienezko 3 gonbidapenak egin beharrik ere. Baina berak zazpi proposamen aztertu zituen. Enpresa horretan EAJko kide bat dago, enpresa horretan daude zortzi langile eta bat EAJko kidea da. EAJko kide bat egotea enpresa horretan, alkatearen erabakian ez du inolako eraginik. Tolosako udalak gremio askorekin egiten du lan eta ez dugu ohiturarik galdetzeko, bere askatasun ideologiko horren izenean, zein den bere bozka politikoa. Gauza bat baldin badago argia da Irurako EHBILDUK saiatzeko ari dela Irurako alkatea difamatzen, gaiaren inguruan ez dagoelako inolako erregulartasunik. Eta nik eskatuko nuke horrelako jarduerekin gelditzea. Kito! Ezin da pertsonekin horrela jokatu; ez da grazioso, eta uste dut Irurako alkateak bere plenoetan jasotzen duen tratua ez dela egokia, inondik inola ere. Ez dakit nahiko argi utzi dudako emandako erantzunarekin*
- .. Ibai Iriarte San Vicente (EHBILDU): *“Iruan urrutasunetik edo tokatzen zaidan neurrian, dakidan arabera, beste informazioa ere badaukat. Hala nola, eskatu ziren txostenetan edo aurrekontuetan, batzordetik pasa ziren artean ez zegoela azkenean aukeratu den hori, edo/eta alkatearen oso gertuko lehenengo mailako familiar batek egin duela txostena, enpresa horren aldekoa. Hau da esan didatena eta harrিতa nago. Zuen aldetik beste informazio bat duzue. Guk jakin nahi dugu bakarrik zein den egoera; batez ere, zure hitzekin erabat ados gaudelako, baina gauza hauek argitu egin behar dira inork gu guztion izena edo izen txarra ez erabiltzeko. Horregatik gauzak argi eta garbi adierazi behar dira. Bestela gauza berekiko informazio ezberdinak ateratzen dira eta hortik kaltetuak ateratzen gara hautetsi guztiok, gu guztion izena kaltetua izaten delako. Zer gertatu den jakin nahi dugu, ez besterik. Nik ere gaur goizean egunkarian irakurri dudanean lur eta zur geratu naiz, eta zuri entzundakoak harridura handiagoa sortu dit esan didaten arabera beste kontu batzuk ere badaudelako. Beraz, eskatzen dugun bakarra zer gertatu den argitzea da.”*
- ... Alkatea: *“Uste dut Irurako kasuak Irurara mugatu behar direla. Eta baten eta besteen komentarioak plenora ez eramatea eskatzen dut informaziorik gabe.”*

OHIZKO OSOKO BILKURA
2015.12.29

Besterik gabe, gaueko bederatzi t'erdietan bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

ALKATEA

Sin más asuntos que tratar, siendo las 21:30 horas de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual, yo, el Secretario, certifico.

IDAZKARIA